

Europa Batasunaren Etiketa Ekologikoa



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



Europako Etiketa Ekologikoa ¿Zer da?

Europako Etiketa Ekologikoa ingurumena zaintzen duten produktuak eta zerbitzuak aitortzeko eta identifikatzeko erabiltzen den Europako sistema ofiziala da. **Borondatezko sistema egiazko eta fidagarri** horren bidez, biziziklo osoan ingurumen-inpaktu txikiagoa duten produktu eta zerbitzuak **sustatzen dira; hau da, baliabideak era efikazean erabiltzen dituztenak eta ingurumenbabes handia eskaintzen dutenak**. Ingurumena zaintzen duten produktuak eta/edo zerbitzuak erraz eta zuzenean identifikatzeko modu bat ematen dio kontsumitzaileari, informazio zehatzetan eta zientifikoan oinarritua, inolako iruzurrik gabe.

Honako produktu hauek lor dezakete Europa Batasunaren



- Garbiketarako produktuak eta zerbitzuak
- Norberaren zaintzarako produktuak
- Pinturak eta bernizaks
- Paperezko produktuak
- Altzariak eta koltxoiak
- Ostatu turistikoak
- Ekipamendu elektronikoak
- Lubrifikatzailleak
- Estalgarriak
- Arropa eta ehungintzako produktuak
- Lorezaintzako produktuak

<https://ec.europa.eu/environment/ecolabel/products-groups-and-criteria.html>



Enpresentzako onurak

- Enpresaren ingurumen-jarduera **hobetzea**.
- Ingurumenaren ikuspegitik, **lehiakideetatik bereizteko** aukera ematen du, eta marka-irudia nahiz enpresaren ospea hobetzen ditu horrek.
- Produktuak **ingurumen-irizpide zorrotzak** betetzen dituela erakusten du, informazio gero eta zehatz eta fidagarriagoa eskatzen den honetan.
- Besteak beste, erosketa eta kontratazio publikoa **errazten eta sustatzen ditu**, ingurumen-irizpide jakin batzuk betetzen dituela egiaztatzeko modu zuzena baita.
- **Hirugarrenek egiaztatzen dute**, eta EBko herrialde guztietan dago aintzatetsia.



Kontsumitzaileentzako onurak

- Produktuak edo zerbitzuak ingurumena zaintzen laguntzen duela **ziurtatzen du**, bizi-zikloaren ikuspegia kontuan hartuta.
- Produktua eta/edo zerbitzua zorrotz aztertu da, agintaritza publiko batek **egiaztatu baitu** (hirugarren independente batek).
- Aurkitzen **erraza** da, logotipoari esker.
- Produktuaren eta/edo zerbitzuaren **ingurumen-kalitatea** bermatuta dago.
- Ingurumen eta kontsumitzaile-elkarte nagusiek **aintzatetsia** da.

Ekonomia zirkular baterantz



Etiketa hau tresna egokia da ekonomia zirkularrerako trantsizioa gauzatzeko Europan, materialen kontsumoa eta hondakinen sorrera murriztuz, eta baliabideen «ziklo» edo fluxu ekonomikoak eta ekologikoak ixten lagunduz.

Europako Etiketa Ekologikoa duten produktuek eta zerbitzuek honako ezaugarri hauek dituzte, besteak beste:

- **Efizienteagoak dira** baliabide materialen eta energiaren erabileran.
- Substantzia toxikoen edo arriskutsuen **erabilera murrizten dute**.
- **Material birziklatuen erabilera sustatzen dute** eta hondakin gutxiago sortzen dute.
- Merkatuko gainerako produktuen **kalitate-maila bera edo hobea dute**.
- Erabiltzen diren ontziek eta bilgarriek ere **ingurumen-inpaktu txikiagoa dute**.





Kontsumo Kontzientea

Etiketaren logotipoa azkar eta erraz identifikatzen denez produktuetan eta zerbitzuetan, kontsumitzaileek erabaki kontzienteak eta arduratsuak har ditzakete, eta, aldi berean, ingurumena zaintzen duten eta berrikuntzaren aldeko apustua egiten duten enpresei lagundu.

**Bilatu EBren Etiketa Ekologikoa!
Merkatuko batez bestekoa baino ekologikoagoak diren produktuak eta zerbitzuak erosten eta kontratatzen ari zarela ziurtatzen dizu etiketa honek.**



KONTAKTUA

**Erakunde eskuduna:**

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren
Garapen, Jasangarritasun eta
Ingurumen Saila



Ingurumen Jasangarritasuneko
Sailburuordetza



Email: etiqueta.ecologica@ihobe.eus



Telefono: 944 230 743



[https://www.euskadi.eus/web01-a2inguru/
es/contenidos/informacion/ecoetiqueta/
es_etiqueta/index.shtml](https://www.euskadi.eus/web01-a2inguru/es/contenidos/informacion/ecoetiqueta/es_etiqueta/index.shtml)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE